

DONOSTIA, 2018ko ekainaren 20a.

Kide preziatuak:

Aurtengoan Euskal Jaietako Artisautza Azoka antolatu behar dugu eta haren berri bidaltzen dizuegu interesgarria izango zaizuelakoan.

EUSKAL JAIK AZOKA

Kokalekua: URUMEA PASEALEKUA. Donostia.

Data: Abuztuaren 30etik irailaren 9ra.

Ordutegia: 10:30etatik 14:30etara eta 16:30etatik 20:30etara.

Azpiegitura: Melaminazko standak, pertsianarekin.

Stand bakoitzak korrante-hargunea izango du (gehienezko potentzia: 1.000 W).

Hedabideetan azokaren publizitatea izango da eta artisau-tailerr partearzaileak ere antolatuko dira.

Standa eskatzeko uztailaren 15a baino lehen honako agiriak bidali beharko dira feriaeuskaljaiak@lurkolektiboa.org helbide elektronikora:

1. Eskaera-orria, behar bezala beteta (zuzenean webgunetik, paperean ez).
2. Artisaua zarela egiaztatzeko frogagiria.
3. Enpresaren IFZ eta standean egongo den tailerreko **artisauaren** NA.
4. JEZ-arekin egunean egotearen egiaztagiria, dagokion epigrafearekin eguneratua.
5. Autonomoen azken hiru ordainagiriak.
6. Lantegiaren ibilbidea:
 - a) Lanketa-tekniken azalpen laburra.
 - b) Piezen gutxieneko prezioa eta batez bestekoa.
 - c) Erakusgai egongo diren piezen 6 argazki, horietako bi stand osoarenak.
 - d) Produktu kosmetikoen kasuan dagozkien osasun ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Dokumenturen bat faltaz gero, eskaera ez da aintzat hartuko hautaketa-prozesuan eta baztertua izango da.

PREZIOA BEZ BARNE.

3 x 2 m-ko standak.....550,00 €

PARTEARTZE BALDINTZAK:

Standak LUR Kolektiboak ezarritako ordutegian irekita egon beharko dute eta arrazoi justifikatu batengatik izan ezean ezingo dira hutsik egon. Edonola ere, stand-a, arrazoi justifikatu batengatik hutsik utzi beharko balitz, alde zuzenetik jakinarazi beharko da. Standak tailerreko kide batek zaindua egon beharko du, behar bezala akreditaturik.

Erakusgai jarriko den materiala esakeran aurkeztutakoarekin bat etorriko da. Hala izan ezean, Lur Kolektiboak bere gain hartzen du stand azokatik kendu edo eskaerarekin bat ez datozen piezak baztertzeko eskubidea.

Muntaketa bidez eginiko piezak ezingo dira salgai jarri ez eta artisauaren lantegian bertan sortu ez diren artikulak ere.

Bitxigintza eta urrengintzako standetan ezik era horretako produktuak erakusgai jarri gero ezingo da inolaz ere erakusketaren % 20a gainditu..

Standa erabat garbi eta inongo kalterik gabe utzi beharko da; hartu denean bezalako baldintzetan itzuli beharko delarik.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko galdutako, hondatutako edota lapurtutako objektuen ardura.

Gutun hau jasotzeak ez du esan nahi azokarako hautatu zaitugunik. Ezinbestekoa da onarpenaren jakinarazpen gutuna jasotzea.

Argibiderik behar izanez gero, telefono-zenbaki hauetara deitu dezakezu: 649 77 46 79 (Marian 9:00etatik 13:00etara) eta 633 330 586 (Marta 16etaik 20etara), edo idatzi helbide honetara: feriaeuskaljaiak@lurkolektiboa.org.

Agur bero bat jaso ezazue,

LUR KOLEKTIBOA.

